


Goienkaria

Martitzena / 2007ko irailaren 25a / GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKILARIA: JOSETXO ARANTZABAL

SAN MIGELAK 2007

Oñatiko jaiak



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu.a.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Onatiko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue



OÑATIKO UDALA

Goienkaria

Argiraratzailea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua**
Monika Belastegi **Erredakzioa** Edu Mendibil, Xabier
Urtzelai, Miran Biteri, Arantzazu Ezkibel, Mireia Bikuña,
Eduarne Burgaña **Maketazioa** Oxel Arrieta
Publizitatea Amaia Mundiñano **Testuen**
zuzenketa Sergio Azkarate

EGOITZA NAGUSIA BERGARA

20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK ARRASATE

20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA

20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e:
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210 • **Tirada:** 4.800 ale



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako
iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako

Kultura Sailak

(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)

diruz lagundutako aldizkaria



alkatearen agurra

Lourdes Idoiaga

Ongi pasa Oñatiko jaiak!

Urtea igarota, herriko jaiak ospatzeko prestatzen ari gara berriro ere, hainbat talde, elkarte eta baita norbanakoren baten proposamenen esker egitarau zabalak eskainiz.

Horregatik eskertu nahi dut bereziki herri-tarran ahalegin hau, horren ondorioz baita posible sentsibilitate eta gustu ezberdinei erantzunez denontzako jaiak antolatzea.

Bestalde, aukera hau baliatuz, herriaren alde lan egiteko nire konpromisoa berretsi nahi dut; eta hori, herritarroei eskaintzen zaizkizuen

zerbitzuak hobetuz egin nahi dugu, ongizate mailan gora egiteko, pertsonen kultura eta giza-beharrei eta orokorrean progresoari irekiak egonez. Hortik abiatuta, eta helburuok betetzeko, beharrezkoa izan daitezen egitasmoak bultzatuko ditugu administrazio eraginkor eta bizia eratuz.

Azkenik, jaietan gurekin egongo ez diren guztiak ditut gogoan, zoritxarrez, gauza bat edo besterengatik, aurten ere ezingo baikara guztiok elkartu.

Agur beroa denoi eta gozatu jaiok!

AURKIBIDEA

Egitaraua > 04-05
Niño Costrini > 06
Kora taldea > 09
Musika Banda > 10
Danborrada > 11
Igor Etxaniz > 12
Prebentzioa > 14
Jolasguneak > 15
Bertso saioak > 16
Rock kontzertua > 18
Auto klasikoak > 19
Herri eguna > 20
Errosaixo Bixamona > 21
Erromeriak > 22



argazki zaharra

Sokamuturra Atzeko kalen

Ez gehiegi, baina apur bat aldatu dira gauzak Oñatin azken hogeitau urteotan. Baita jaiak ospatzeko moduan ere. Hala eta guztiz ere, badira hainbat ekitaldi erabat errotuta daudenak eta urtetik urtera jaien egitarauan sartzen direnak. Sokamuturra da horietako bat.

Alboan ikus daiteke 70eko hamarkadako argazki bat. Garai hartan sokamuturra ez zen gaur egun bezala Foru enpa-

rantzan egiten. Herriko hainbat kaleetan barrena baizik. Irudian, Atzeko kale ageri da. Hain justu, Guria taberna paretik plaza aldera doa zezena. Mutil batzuk zezenaren aurrean korrika, beste batzuk hormara igota eta ahal duenak etxeko balkoitik guztia ikusten. Hori, behintzat, ez da batere aldatu.

Argazkia: Kontzejupetik.
Testua: Monika Belastegi.
Urtea: 70eko hamarkada.



ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itxulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrak izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea

20560 OÑATI

Tel./Faxa: 943 78 30 09

Polts.: 620 77 66 20

EGITARAUA

JAI ETAKO EGITARAUA

Egubakoitza 28

18:30 Poxpolo eta Mokolo PAILAZOAK, Foru enparantzan. Eguraldi txarrarekin, Santa Anan.
20:00 TXUPINAZOA Txosnagunean eta Txantxiuaren JAITSIERA.



SAGARDO DASTATZEA, HERRI EGUNEAN.

Gero, Txaranga.
20:30 Haitzama taldearekin DANTZALDIA, Foru enparantzan.
23:00 DANBORRADA Nagusia herriko kaleetan, Oñatiko Musika Bandak lagunduta.
Gero, Haitzama taldearekin DANTZALDIA, Foru enparantzan.
00:00-03:00 Borondatezko ALKOHOLEMIA KONTROLA, Unibertsitate etorbidean.

Zapatua 29 San Migel Eguna

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.
10:00 Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro zelaian.
11:00 ELKARMEZA NAGUSIA, parrokan.
12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.
12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarrarekin Zubikoa kiroldegian.
13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, Foru enparantzan.

Egitaraua:
A San Miguel (Martxa). Refice
Certamen Levantino (Pasodoblea). P. Marquina
Un dia en Viena (Obertura). Suppé
Canta Napoli. Konponketa: Fernando Francia
La Gran Via (Aukeraketa). Chueca



UMEENDAKO BARRAKAK IZANGO DIRA.

16:00 24. Mikel Deunaren sariko PILOTA PARTIDUAK. Finalerdiak. Zubikoa kiroldegian.
17:30-20:00 Haur parkea, Etxaluzen.
19:00 Niño Costriniren IKUSKIZUNA. Zirkoa, umorea eta akrobaziak, Foru enparantzan.
22:00 ROCK KONTZERTUA, txosnagunean: Peter and the Test Tube Babies, Chelsea, Golpe de Estado, Never Surrender eta Travis Bickle.
23:00 Tirri tarra, Ganbara Abesbatza eta Sotto Voce orkestraren *Argi Beltz* KONTZERTUA.

Domeka 30

09:00 Iriarena Txistulari Bandarekin.
09:30-10:00 Poney eta adardun ANIMALIAK Foru enparantzan.
10:00 SOKAMUTURRA Foru enparantzan, Arno abeltzantzako zezenekin.
12:00-18:00 Auto klasikoen ERAKUSKETA, txosna eta unibertsitate inguruan.
13:00 Voces Navarras jota taldearen KONTZERTUA, Foru enparantzan.



Ondo pasau jaixak!

Errementari plaza 8, Oñati
Tel.: 943 53 22 47

- Kirol denda
- Zapalketaren azterketa
- Arreta pertsonalizatua



LIZARRALDE

KIROLAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

Oñati
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

EGITARAUA

16:30 Iriarena Txistulari Bandarekin.
16:30-17:00 Poney eta adardun animaliak, Foru enparantzan.
17:00 Igor Etxaniz *Kinttela*, zaldi hezitzailearen ERAKUSTALDIA.
18:00 Senzala taldearen CAPOEIRA erakustaldia, Kalegoianako plazatxoan.
19:00 Senegalgo Kora taldearen KALEJIRA.
20:30 Senegalgo Kora taldearen KONTZERTUA, Foru enparantzan.

Egubakoitza 5

20:00 ROCK KONTZERTUA, txosnagunean Astopitoak, Manifa, Karkaba, Triskantza eta Clavo Oxidado taldeekin.
22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoan. Jon Maia, Amets Arzallus, Joxe Agirre, Sustrai Colina, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin.

Zapatua 6 (Herri Eguna)

09:00 Txistulari Bandaren GOIZERESIA.
10:30 Herri mailako behi, ardi, ahari, bildots, asto, behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; zaldi erakusketa; gazta lehiaketa; herriko fruta eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa eta artisau erakusketa. Guztia unibertsitate inguruan.
11:00 TRIKITILARIAK herriko kaleetan.
11:00 Tolosako GAITEROAK herriko kaleetan.
12:00 Sagardo DASTATZEA, Foru enparantzan.
13:15 Lehiaketen SARI EMATEA.
14:30 Herri BAZKARIA, Zubikoan.
18:00 Herri kirolen JAIALDIA, Foru enparantzan. Eguraldi txarrarekin, Zubikoan.
19:39 E. Esnalen SALBEA, parrokiaren, parrokiako koruak tea Oñati Abesbatzak abestuta.
20:30 Erdizka Lauetan taldearekin DANTZAN IKASTEKO aukera, Foru enparantzan.
22:30 24. Mikel Deunaren sariko PILOTA

PARTIDUAK. Finalak. Zubikoan.
23:00 Erdizka Lauetan taldearekin DANTZAN IKASTEKO aukera, Foru enparantzan.
23:00 Tapia eta Leturiarekin ERROMERIA, txosnagunean.

Domeka 7

09:00 GOIZERESIA, Txistulari Bandarekin.
11:00 ELKARMEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.
12:00-14:00 GAZTEENDAKO (12-16 urte) JOLAS PARKEA, Etxaluzen.
12:00 13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, Foru enparantzan.

Egitaraua:
Lazos de lealtad (Pasodoblea). Antonio Ibarrodo
La italiana en Argel (Obertura). Rossini
Artzaintza. Felix Kortabarria
An all american suite. Robert Macray
17:00 MUS TXAPELKETA, txosnagunean.
17:00-20:00 GAZTEENDAKO (12-16 urte) JOLAS PARKEA, Etxaluzen.



SOKAMUTURRA HERRIKO KALEETAN.



HERRI KIROLLEN ERAKUSTALDIA, HERRIKO PLAZAN.

18:30 Valentziako Scura Splants taldearen *Flit* KALE IKUSKIZUNA.
19:00 TORTILLA LEHIAKETA eta HERRI AFARIA, txosnagunean.
20:00 La Dama orkestraren KONTZERTUA, Foru enparantzan.
20:30 BALKOITIK BALKOIRA Xabier Paia eta Fredi paia bertsolariekin, Kale Zaharreen.
23:00 A. Caballer etxearen SUZK ERROBERAK.
23:30 La Dama orkestraren KONTZERTUA, Foru enparantzan.

Astelehena 8 Errosaixo Bixamona

09:00 IRIARENA Txistulari Bandarekin.
09:30-10:00 PONEY eta ADARDUNAK, herriko plazan.
10:00 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan.
12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.
Eguerdian, PAELLA-JANA txosnagunean, Laixan eta txosnen eskutik.

16:30 IRIARENA Txistulari Bandarekin.
16:30-17:00 ZEZENTXO ETA PONEYAK, Foru enparantzan.
17:00 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan.
17:00 BERTSIO-KONTZERTUA, txosnagunean.
19:00-21:00 Djamboree batukada taldearen KALEJIRA.
20:00-21:00 Egan taldearekin DANTZALDIA, Foru enparantzan.
23:00 Egan taldearekin DANTZALDIA, plazan.

Domeka 14

Goizean barrena Ageriko V. Pintura Lehiaketa. Gero, urriaren 15etik 28ra, lehiaketako lanak ikusgai egongo dira kultura etxean.

Zapatua 20

11:30 XVI. Mikel Deuna Tenis Txapelketaren finalak, Zubikoa kiroldegian.



itziar optika



**ONDO PASAU
JAIXAK!**

Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
 OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

NIÑO COSTRINI

Niño Costrini: barrea helburu duen ume handia

Ironiaren eta umorearen bitartez, ikusleengan barrea eta hausnarketa sortzea da Niño Costriniren helburu nagusia

Foruen plazan

**Zapatuan
19:00etan**

Zirkua, umorea eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna.

EDU MENDIBIL

Ume handi bat; bihurria, absurdoa eta eskizofrenikoa. Horrelakoa da Niño Costrini, zapatuan umen eta helduen barreak piztuko dituena.

Oso gazte hasi zen Niño Costrini delakoa antzerkian. Sebastian Marcelo Guz (Neuquen, Argentina, 1975) dugu Niño Costrini eta 1994a ezker ari da kale ikuskizunak eta antzerkia egiten Latinoamerikan eta Europan nagusiki. Buenos Airesen, Cordoban (Argentinan), Bolonian (Italian) Mexikon eta Espainian egin ditu zirku ikastaroak, eta, era berean, Xiclo zirkuaren sortzaileetako bat dugu. Talde komiko-musikal baten ere jotzen du Guzek: Los Kretinos.

BARREA, SENDAGARRI

Oñatira ekarriko duen ikuskizunarekin mundu zabaleko jaialdietan izan da argentinarra. Ironiaren



Niño Costrini 1994a ezker ari da kale ikuskizunak eta antzerkia egiten. Oñatin izango dugu zapatuan.

NIÑO COSTRINI

eta umorearen bitartez, ikusleen barrea piztea da Niño Costriniren helburu nagusia. "Barreak sendatu egiten zaitu, arazoak alde batera uzteko aukera eskaintzen dizulako. Hori

Oñatira ekarriko duen ikuskizunarekin mundu zabaleko jaialdietan izan da Sebastian Marcelo Guz argentinarra

bai, fisikoki nekagarria gerta daiteke barrea zenbaitetan... Eta musikarekin gertatzen den moduan, barreak bere kadentzia, melodia eta erritmo propioa dauka", dio hark.

Hain zuzen, emanaldietan ikusleen konplizitatea ezinbestekoa du Niño Costrinik. Ondo baino hobeto daki ikusleen konfiantza bereganatzen, eta Oñatin ere horretan ahaleginduko da. Zirkua, umorea eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna ekarriko du zapatuan.

PERTSONAIA XARMANGARRIA

Marrakzi bizidunetako pertsonaia gogora ekartzen ditu Niño Costrinik. Hitzen ordez txistuak erabiltzen ditu. Emanaldian zehar hazten doan pertsonaia da: "Ume handi bat; bihurria, absurdoa eta eskizofrenikoa". Beharbada gauzak ez zaizkiolako ondo irteten, xarmangarri bihurtzen da ikusleen begietara. Izan ere, hanka-sartzeekin helduek askotan ulertzen ez dituzten gauzak plazaratzen ditu Costrinik, eta hausnarketa bultzatu. Munduarekin adiskidetzen den agure bilakatu da azkenik, bidean abadeak eta diktadoreak astindu dituela. Ordubete inguruko ikuskizuna izango da.

Mapfre taldeko lehenengo "Trebol de Oro" sariarekin omendua



Onda pasan jaisak!

Jose M^a Altube Kortabarría

Portu kalea 5 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85



Ehume

Apainketa

Garibai, 8 · Tel: 943 77 11 48 · 20500 ARRASATE



ilusiorako mila eta bost arraso



ARREGI

Nekazalturismoa



*2 egongela
eta jangela*



*6 logela,
denak bainuarekin*



*Paraje ederrean kokatua,
leku egoki eta lasaia,
atsedenerako
behar duzun guztiarekin*



*Ondo pasatu
San Migelak!*

Garagaltza auzoa 21 • Tel. 943 78 36 57 / 943 78 08 24

SENEGALDEKO TALDEA

Afrika beltzeko doinuak Kora senegaldarren eskutik

Foru plazan

**Domekan
19:00 eta 20:30**

Senegaleko folklorea
az gozatzeko
aukera Kora
taldearen eskutik.

Hamabost lagunek osatzen dute Kora taldea, eta Senegaleko talde folkloriko entzutetsuenetakoa bilakatu da

E.M.

Afrika aldeko doinuak izango ditugu domekan Oñatin. Senegaleko Kora perkusio eta dantza taldeak emanaldia egingo du Foru plazan iluntzean, kalejira egin ostean.

Hamabost lagunek osatzen dute Kora taldea, eta Senegaleko talde folkloriko entzutetsuenetakoa bilakatu da. Ez hori bakarrik, Afrikatik kanpo ere emanaldi ugari egin dituzte, eta euren kontinenteko folklorea han eta hemen ezagutzera eman. Kritika bikainak jaso dituzte nazioarteko hainbat jaialditan. Ikuskizunaren indarra eta egiazkotasuna nabarmendu dute adituek.

ERRITMO BIZIAK

Odolak eta musikaren indarrak batuta, N'Diaye anaiek eta taldeko dantzariak kolorez betetako ikuskizun basatia eta indar-

tsua ekarriko dute. Afrika beltzeko espirituak dantzan jartzeko modukoa, zalantzarik gabe.

Taldeari izena ematen dion instrumentua Afrikan zerbait herrialdetan erabiltzen duten harpa mandinga da: kora. Era berean, Wolof perkusioek presentzia nabarmena daukate: maisutasun handiz jotzen dituzte danborrak Korako kideek. Esan bezala, erritmo biziak eta dantzariak egiten dituzten salto akrobatikoak dira Oñatira ekarriko duten ikuskizunaren ardatzak.

Domekan, irailaren 30ean, kalejira eskainiko dute 19:00etan eta ondo-

**Erritmo biziak
eta dantzarien
salto
akrobatikoak
dira
ikuskizunaren
ardatzak**



Musikariak eta dantzariak kolorez betetako ikuskizun basatia eta indartsua eskainiko dute.

ren, 20:30ean, kontzertua izango da Foru plazan. Ordu eta erdi inguruko emanaldia egingo dute Kora taldeko kideek Oñatiko plazan.

Euren koreografiatan nabariak dira Senegaleko erritoei erreferentziak, ezkontzak, jaiotzak eta festa tradizionalak tartean. Aldi berean, erritmoak eta ahotsak tonu dramatikoak hartzen dute batzuetan: historian zehar jasandako injustizia egoeren aurrean etsipena agertzeko modua da. Izan ere, milaka urtetako historia aberatsa izan arren, Senegalek esklabotza sufritu behar izan zuen hiru mendetan zehar.

DANTZA ETA MUSIKA

Bere herrialdearen mina dantzaren, musikaren eta kantuen bitartez azalartzen ditu Kora taldeak. Eta Senegaleko kultura aberatsaren enbaxadore apartak bihurtu dira azken urteotan. San Migelatan, horrenbestez, Afrika beltzaren doinuekin gozatu ahal izango dugu.



GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea
Ginekologoa

Ondo pasau jaixak!

Atzeko kalea 6, behea
ONATI
Tel.: 943 78 24 89
(ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak:
ostiraletan
9.00etatik 13.00etara
eta 15.00etatik 18.30era

Aseguruak:

Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

**EDERTASUNA DA...
GEURE BURUA MAITATZEA
NOIZ ARTE PENTSATZEN DUZU
ITXAROTEA?**

ZARENA ZARELAKO...

- Depilazioak
- Laserra
- Aurpegirako tratamenduak
- Gorputzerako tratamenduak
- Drainatze masajea
- Erlaxazio masajea

ESKAINITZA BEREZIAK:

- Harri bolkanikoekin egindako masajeak
- Eskuaren irakurketa hileko azken ostegunetan (Alberto Alcubierre)
- Feng Shui ikastaroa hilero (Esther)
- Urritik aurrera: BOTOX, Peeling kimikoa, ezpainen sendotzea, bekainen tatuatzea ilez ile (Ana Rita)



Kalebarria 29 behea
Orbea Etxea, parke aldetik
Tel.: 943 78 01 46
20560 OÑATI

www.goiena.net/blogak/gutztizeder



Ondo pasau jaixetan!

Ez ahaztu orain dela unerik egokiena LASER bidezko depilazioa egiteko, elektrikoa eta baita solariuma erabiltzeko ere.

OÑATIKO UDAL BANDA

Udal Musika Bandak alaituko ditu jaiegunak

Egubakoitzean, hilaren 28an, nagusien danborradan joko du Oñatiko Udal Bandak, Iñazio Ibarrendoren gidaritzapean

ARANTZAZU EZKIBEL

Oñatiko jaiak alaitzea eta erritmoz betetzea izango da Oñatiko Udal Bandaren lana beste urtebetez; ekitaldi mordoak izango dituzte.

San Migel bezperan hasiko dira Oñatiko jaiak, nagusien danbor hotsekin; eta, Oñatiko Udal Bandako kideak ere bertan izango dira. *Danborrada martxa, Mirentxu, San Migelen ereserkia* eta beste hainbat pieza joko dituzte.

SAN MIGEL EGUNA

Irailaren 29an ospatuko dute oñatiarrek jaietako egun handia: San Migel eguna. Ondo hasteko, eguerdiko 12etan kalejira egingo dute Udal Bandako musikariek. Ondoren, kontzertu berezia eskainiko dute udaletxeko arkupeetan; *San Migelen martxa*-rekin hasiko dute kontzertua. Gero, *Certamen Levantino, Un dia en Vie-*



Oñatiko Udal Bandako musikariak.

ARGAZKILARIA IZENA

na, Canta Napoli eta *La Gran Via* piezak joko dituzte plazan bilduko diren ikusleen belarriak goxatzeko.

Hurrengo ekitaldia urriaren 1ean izango dute

Errosarixo-domekan Antonio Ibarrendo eta Felix Kortabarria oñatiarren lanak joko dituzte Udal Musika Bandakoek


eta lau pieza eskainiko dituzte; tartean Antonio Ibarrendoren eta Felix Kortabarriaren lanak. Erro-saixo-bixamon eguneko kalejirarekin bukatuko dituzte jaietako lanak.

Tirri-tarrak 'Argi beltza' eskainiko du

Tirri-tarra taldeak *Argi beltza* diskoaren aurkezpena egingo du Oñatiko plazan irailaren 29an. Gaueko 11etan izango da kontzertua eta bertan 100 lagun baino gehiago bilduko dira ikuskizun ezin hobe eskaintzeko. Tirri-tarra taldekoek, gainera, Oñatiko Ganbara abesbatzako laguntza izango dute, Sotto Voce orkestrarekin batera.

Tirri-tarra fanfarrea 1973an sortu zen Pasai Donibanen. Orduetik hona Euskal Herriko jaien erreferente izan dira. Azkenaldian, baina, musika, antzerkia eta dantza uztartzen ari dira; *Argi beltza* da horren adibidea.

urrats 943533637
Podologia Zentroa



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

R.P.S. 208/05

Bidebarrieta 20 • Oñati
Orduetgia: 09.30etatik 13.30etara / 15.30etik 20.00etara

dOr

- Solarium horizontala aire egokituarekin
- Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazioa argizari hotz eta beroaz
- Portzelanazko azazkalak
- Betileen permanentea
- Manikura eta pedikura SPA
- Makilajea
- Masajeak: - Masajeak harri bolkanikoekin
- - Pinda zakutxoekin
- ...

LASER DIODO. Orain da unerik egokiena.
Etor zaitez eta kontsultatu gure prezioak
inolako konpromisorik gabe



dOr Estetika
Errementari 5
20560 Oñati
T. 943533647

NAGUSIEN DANBORRADA

Danbor burrunbak egingo dio ongietorria San Migeli

Herriko kaleetan

**Irailaren 28an
23:00etan**

Bidaurretako monasterioan hasi eta plazan amaituko da danborrada

Bidaurretako monasterioan hasiko dute nagusien danborrada; amaiera, beti bezala, Foruen plazan izango du

ARANTZAZU EZKIBEL

San Migel jaien bezperan nagusien danborrada ospatuko da herriko kaleetan; hala, 200 lagun inguru arituko dira danborra jo, dantza egin eta herriko kaleak alaitzen.

Gauko 11etan hasita danbor hotsak izango dira nagusi herriko kaleetan. Ohikoa den moduan, Bidaurretako monasterioan hasi eta alde zaharreko kaleak zeharkatuko ditu nagusien danborradak. Amaiera Foruen plazan izango du; han hainbat pieza joko dituzte Oñatiko Udal Bandaren laguntzarekin. Beti bezala, *San Migelen ereserkia*-rekin amaituko da danborrada.

BOST KONPAINIA

Aurtengo danborradan, gutxi gorabehera, 125 dabor-jole irtengo dira, bost taldetan banatuta: sukaldariak, baserritarrak, barril-

joleak, kantinerak eta gizonetzko danbor-joleak. Gainera, 51 neska-mutiko aterako dira dantzan eta 12 lagunek eramango dituzte herriko elkarteetako banderak.

Urtero legez, nagusien danborrada irekiko duten zaldiak Gasteiztik ekarriko dituzte.

KANTINEREK, BURU BERRIA

Aurtengo berrikuntzetako bat kantineren buruan egongo da. Azken urteetan egin duen lana utzi egingo du Ane Beitiak; eta, haren ordez, Amaia Cid irtengo da aurtengoa. Dena prest daukate, beraz, herriko jaiak hasteko!

Bost taldetan banatuta, 125 danbor-jole aterako dira Oñatiko nagusien danborradan



Gutzira 200 lagun inguru arituko dira nagusien danborradan.

GOIENKARIA



Bidebarrieta • OÑATI
Tel.: 943 78 34 44



**Ondo pasa ditzazuela
San Migel jaixak!**

ELKARRIZKETA IGOR ETXANIZ ZALDI HEZITZAILEA

"Ikuskizun polita eskainiko dugu, plaza toki egokiena ez izan arren"

MIREIA BIKUÑA

San Migel jaietako berrikuntza nagusietako bat Igor Etxanizek plazan eskainiko duen zaldi-doma erakustaldia da. Zaldi hezitzaile azpeitiarra burtzikari profesionala izan zen (rejoneadorea) eta orain herriz herri dabil bere abilezia erakusten.

Nolakoa izango da irailaren 30ean egingo duzun erakustaldia?

Bi zaldi erabiliko ditut erakustaldian. Batekin hezte bakeroa egingo dut. Modalitate hori Andaluzia aldean lantzen da gehienbat, eta gaur egun zezen-plazetan ikusten denaren oso antzekoa da.

Beste zaldiarekin hezte klasikoa egingo dut. Kasu horretan, zaldiaren mugimenduak ikusgarriagoak dira.

Halaber, bi modalitateetan musika erabiliko dut, eta esatari batek ikusleendako azalpenak emango ditu: zaldiak egiten dituen mugimenduen izenak eta mugimendu bakoitzak duen zailtasuna.

Zenbateko iraupena izango du ikuskizunak?

Herriz herri darabilgun ikuskizunak ordu eta erdiko iraupena du. Bada, Oñatin ordu erdiko saioa egingo dugu, herritarrek gustura ikustekoa.

Ikuskizuna plazan egingo duzu. Tokirik egokiena al da?

Ba, egia esan, ez. Duela egun batzuk Oñatin egon ginen tokia ikusten, eta ez da halako ikuskizunak egiteko lekurik aproposena, hondarrik gabe zaldiak irristatu egiten dira-eta. Edozelan ere, ariketa gehienak egiteko aukera izango dut. Kontu handiz ibiliko naiz.

Edozelan ere, Zumarragako eta Arrasateko plazetan ere antzerako zoruan egin dut ikuskizuna eta ez dut arazorik izan.

Oñatira bi zaldi ekarriko dituzu. Guztira zenbat dituzu?

Ikuskizuna osorik egiteko bost zaldi erabiltzen ditut. Baina Oñatin ordu erdiko saioa egiteko bi zaldi erabiliko ditu: bat portugaldarra da eta bestea, anglo-arabiarra.

Noiztik diharduzu ikuskizun horrekin?

Orain dela hiru urte hasi nintzen. Ordura arte burtzikari profesioala izan nintzen (rejoneadorea). Profesional mundua alde batera utzi, eta urtean ikasitakoa erakusten hasi nintzen ikuskizun horrekin.

Zergatik utzi zenuen burtzikariaren mundua?

Kirol oso gogorra eta sakrifikatua da. Ordu asko eskatzen dituen kirola da; eta oso garestia.



Igor Etxaniz Arrasaten iaz egindako erakustaldian.

GOIENKARIA

"Kirol honetan zaldia da protagonista nagusia, eta asko zaindu behar da"

"14 urterekin burtzikari baten etxean egon nintzen kirol hau ezagutzeko"

Kirol honetan zaldia da protagonista. Hala, zaldi ona duenak maila ona lortuko du. Alegia, profesional munduan mantentzeko zaldi onak behar dituzu, eta horiek oso garestiak dira.

Halaber, zaldi hezitzaile fisikoki asko zaindu behar da.

Burtzikariak non erosten dituzte zaldiak?

Zezen-plazetan toreatzeko zaldiak Portugalen erosten dira. Hango zaldiek mugimendu oso onak egiten dituzte. Hala, oso ikusgarriak dira plazetan.

Baina Portugalgo merkaturia asko garestitu da. Zaldi onak dituztela jakinik, prezioak asko igo dira.

Nola ezagutu zenuen burtzikariaren mundua?

Gure etxean beti ezagutu ditut zaldiak eta txikitatik erakarri nau zezen munduak. Izan ere, 14 urte nituela, burtzikari zen guraoen lagun baten etxera joan nintzen, Zafra herrira (Granada). Han ezagutu nuen gertutik kirol hau. Eta, hain zuzen, halaxe hasi nintzen.

Profesional izan zinen artean, zein tokitan toreatu duzu?

2000n sartu nintzen burtzikariaren munduan. Profesional izan nintzen artean, urtero hamabost zezenketa egiten nituen; besteak beste, Iruñean, Bilbon eta Baionan.



ONDO PASA
JAIETAN!

ULMA



- AKER
- ANTON
- ARRANO
- BIKOITZ
- BOGA
- ETXE-AUNDI
- GALICIA
- GURIA
- ITURRITXO
- IZARRAITZ
- ONGI
- OTAMENDI
- TXOPEKUA
- TXURRUKA
- URTIAGAIN
- ZOTZ

OÑATIKO TABERNEN PARTEZ
**Ondo pasau
jaixetan!!!**

PREBENTZIOA

Borondatezko alkohol probak egingo dituzte egubakoitzean

Unibertsitate etorbidean jarriko dute karpa Sasoia taldekoek, gauerdian hasi eta goizeko hiruretara

EDURNE BURGAÑA

Udaleko Prebentzio Sailak antolatuta, borondatezko alkohol probak egingo dituzte egubakoitzean: kontrolez gainera, informazioa ere emango dute

Jaieran alkoholaren kontsumo arduratsua bultzatzeko kanpaina antolatu du Udaleko Prebentzio Sailak. Egubakoitzean boron-

datezko alkohol probak egingo dituzte. Ez da lehenengo aldia era horretako kanpaina martxan jartzen dena. Corpusetan ere borondatezko alkohol pro-

Taula bat ere banatuko dute, bakoitzak alkohol tasa kalkulatu ahal izateko

bak egin zituzten. "Jendea prest egon zen kontrolak egiteko.

Karpa jartzen ari gine-la, jendea itxaroten zegoen proba egiteko. Hiru orduan adin askotariko ia 200 pertsona etorri ziren. Orain, berriro egitea pentsatu dugu, baina San Migel festetan", azaldu du Prebentzio Saileko Ainhoa Moyuak.

POSITIBO ALA NEGATIBO?

Unibertsitate etorbidean ipiniko dute karpa aurten. Sasoia taldea arduratzen



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

GOIENKARIA


da horretaz, eta gauerditik goizeko hiruretara egongo dira. "Kontrola egitean, pertsona bakoitzari esango duen ala ez, eta zenbat denbora beharko duen alkohol hori gorputzetik botatzeko", gehitu du Moyuak.

Karpara joan barik ere, bakoitzak sexuaren eta pisuaren arabera zenbat edan ahal duen kalkulatzeko taulak ere banatuko dituzte tabernetan eta txosnagunean. "Taularekin, bakoitzak kalkulatu ahal izango du zenbat edan ahal

duen positibo eman barik", argitu du Moyuak.

Gainera, adin txikiko-
ei alkoholik ez zerbitzatze-
ko kartelak ere banatuko
dituzte Udal Prebentzio
Sailekoek, eta kontsumo
arduratsua bultzatzen
jarraituko dute.

MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA



MEKALKI

S. Coop.

*Ondo ibili
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
<http://www.mekalki.es>
OÑATI

UME ETA GAZTEENDAKO JOLASGUNEAK

Gazteendako parkea jarriko dute urriaren 7an Etxaluzen

Goizean 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara

EDURNE BURGAÑA

Skatea, rokodromoa, herri kirolak, perkusio tailerrak, malabarrak... Denetariko tailer eta jarduerak antolatu ditu Udaleko Prebentzio Sailak herriko gazteei zuzenduta.

Gazteei zuzendutako jarduera gutxi egoten diren kexua herri gehienetan entzuten da. Horri aurre egiteko, San Migel festetan gazteendako parkea jarriko dute Oñatin urriaren 7an, Etxaluzen.

Udaleko Prebentzio Sailak antolatutako ekintza da, eta gazteek parte hartzea da kontua. Izan ere, umeendako parkeak ohikoak izaten dira jaietan, baina ez gazteei begira antolatutakoak. Iaz jaien ostean jarri zuten parkea, eta, lortutako arrakasta ikusita, aurreko jaien egitarauan barruan sartzea erabaki dute.

TAILER ETA JOLASAK

Etxaluzen jarriko duten parkea 12 eta 16 urte bitartekoentzako izango da. Skatea, rokodromoa, tirolina, herri kirolak, perkusio tailerrak, malabarrak eta beste hainbat ekintza egin ahal izango dituzte. Goizean



Etxaluzen jarriko duten haur parkean puzgarriak egongo dira, beste hainbat jolasen artean.

GOIENKARIA

**Gazteendako parkean
Kalezkako monitoreek jardungo dute
ardunadun lanetan**

12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta arratsaldean, berriz, 16:00etatik 20:00etara.

Gazteekin biltzen dira urtean bitan Prebentzio

Sailekoak, eta beharriak aztertu. Horrela, haiei egokitutako parkea izango da. Hala ere, gazteak ez dira bakarrik ibiliko jolasetan, Kalezkako monitore-

ak ibiliko dira-eta haien arduradun lanetan.

UMEENDAKO ERE BAI

Baina umeek ere edukiko dute betiko parkea jaietan.

**Umeendako parkea zapatuan
jarriko dute Etxaluzen, eta giro txarra
eginez gero, Zubikoa kiroldegian**

Kultura batzordeak antolatuta, San Migel egunean izango da, zapatuan. Puzgarriak, ludoteka, zezen mekanikoa eta Santa Fe tren jarriko dituzte Etxa-

luzeko parkean umeen gozamenerako. Egun horretan eguraldi txarra eginez gero, baina, Zubikoa kiroldegian jarriko dute parkea.

 **donika**

INDUSTRIA HORNIDURAK

25
urte
...burdindegia-hornidura arloan

1.982
2.007

tel. 943 78 07 45 • fax. 943 78 11 75
Goribar auzoa z/g, 20560 OÑATI

B2B - www.sumiplus.com



Onda pasatu jaiak!

BERTSO SAIOAK

Joxe Agirrek beterano lanak egingo ditu gazteen aurrean


Urriaren 5ean egingo duten bertso saioak puntako bertsolariak batuko ditu, 22:30ean, Zubikoa pilotalekuan

GOIENKARIA

Urriaren 5erako puntako bertso saioa gertatu du Oñatiko Udalak. Pilotalekuan izango da hitzordua, urriaren 5ean, 22:30ean hasita.

Jon Maia (Urretxu, 1972), Amets Arzallus (Hendaia, 1983), Joxe Agirre (Azpeitia, 1929), Sustrai Colina (Biarritz, 1982), Igor Elortza (Durango, 1975) eta Jexux Mari Irazu (Larraul, 1972). Seikote horrek aseko du oñatiarren bertso-gogoa, eta, zeintzuk datozen ikusita, gaitza izango da pilotalekutik gustura ez ateratzea. Joxe Agirrerren baimenarekin, seikote gaztea etorriko da Oñatira; hala, azpeitiarrak egingo ditu, gazteen aurrean, beterano lanak.

SARRERAK, EGUNEAN BERTAN Udaletik esan digute bertso saioa zuzenean jarraitzeko ez dituztela sarrerak aurrez salduko, ekitaldia



San Migel jaietako klasikoetako bat da Zubikoako jaialdia. Aurten ere puntako bertsolariak izango dira.

GOIENKARIA

baino hiru ordu laurden lehenago irekiko dituzte leihatilak, 21:45 inguruan. Pilotalekuan 700 lagunendako tokia dago, eta lehenagoko bertso jaialdietan ez da pilotalekua bete;

Udalak ez ditu sarrerak aurrez salduko; bertso saioa baino hiru ordu laurden lehenago irekiko dituzte leihatilak

horrenbestez, Udaletik esan digute sarrerak aurrez saltzeak ez daukela zentzu handirik. Bestalde, lerrook idatzi ditugunerako, prezioa zehaztu barik zegoen.

Paia anaiak, balkoitik balkoira

San Migeletako bertso jaialdia bezala, *Balkoitik balkoira* bertso saioa ere klasiko bilakatu da dagoeneko; azken urteetako saioek, esaterako, arrakasta handia izan dute. Jende asko gerturatzeko da balkoi batetik bestera esaten direnak entzutera. Oraingoan, urriaren 7rako egin dute hitzordua, eta Xabier Paia eta Fredi Paia anaiak izango dira aurrez aurre, Kale Zaharrean. Algortako anaiei saioa ere entzutekoa izango da. Anaiak izanda, erraz aireratuko dituzte etxeko trapu zaharrak balkoian. Horrelakoetan, ikusleek normalean baino gehiago gozatzeko dute.



- MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
- TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
- ARTEZTEKO MAKINAK

Ondo pasa San Migeletan!

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI



Lazarraga 3 • OÑATI
Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58
www.onate@viajesaraba.com

Hizkuntza eskolak

haur, gazte, heldu eta enpresentzat
txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera

- Extranet-a ikasleentzako zerbitzuarekin
- Ikasteko asteroko mezu elektronikoak
- On line sistema

Eta Mondragon Unibertsitateko
ikasle bazara

%25eko
deskontua *

* Aurrez aurreko eskoletan

matrikula zabalik



Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00

Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02

Bilbo
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67

Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55

www.mondragonlingua.com

TXOSNETAKO KONTZERTUA

Rock eta punk doinuak nagusituko dira zapatuan

Peter and The Test Tube Babies, Chelsea, Golpe de Estado, Never Surrender eta Travis Bickle taldeek joko dute

MIRIAN BITERI

Rock eta punk erritmoak nagusituko dira zapatu gauean txosnagunean. Ingalaterra, Katalunia eta Debagoieneko bost taldek joko dute. Giro ederra, bada, zapatu gaberako.

Txosna batzordea jo eta su ibili da azken hilabeteetan zapatuko kontzertuak zehaztu ahal izateko. Lehen kontaktua uztailaren amaiera aldera egin zuten eta ordutik hona lanean ibili dira, egitaraua ixtea lortu duten arte.

Bost talde arituko dira txosnagunean. Ingalaterratik Peter and The Test Tube Babies eta Chelsea musika taldeak etorriko dira. Katalunia aldetik, berriz, Travis Bickle iritsiko da. Gai nontzeko bi taldeak, berriz, ibarrekoak dira: hain zuzen, Never Surrender arrasatearrak eta Golpe de Estado oñatiarrak igoko dira agertoki gainera.

Kontzertuak 22:00etan hasiko direla jakinarazi du Txosna batzordeko kide Xabier Elortzak. Talde bakoitzak ordubeteko emanaldia eskainiko duela ere azaldu du. Rock eta punk doinuak nagusituko dira gau osoan.

AHALEGIN BEREZIA

Jende asko espero dutela aitortu du Elortzak. Horren harira, azpimarratu du azken urteotan ahalegin berezia egiten ari direla kalitatezko kontzertuak antolatzeke.

"Iaz hasi ginen Ingalaterratik musika taldeak ekartzen", aipatu du. Jendearen erantzuna "ezin

Txosnagunean joko duten taldeen artean Golpe de Estado oñatiarrak daude



Golpe de Estado oñatiarrak txosnagunean joko dute zapatuan.

GOIENKARIA

hobea" izan zela-eta, aurten errepikatzea erabaki dute. Promozio lanak egiten dituen enpresa baten bitartez bi talde ekarri dituzte handik: Peter and The Test Tube Babies eta Chelsea, hain zuzen ere.

Bi talde horiek zapatuan bertan iritsiko direla azaldu du Elortzak. "Aireportura joan behar dugu haiek jasotzera eta ondoren ibarrera ekarriko ditugu". Kontzertua eman ostean, Debagoieneko landetxe eta hotel batean gaua pasa eta Ingalaterrara itzultzeko hegaldia hartuko dutela gaineratu du.

Horiez gain, Golpe de Estado oñatiarrak ere joko dute. Bost lagunek osatzen dute esandako taldea eta 80ko hamarkadako punka jorratzen du, batez ere. 1999. urtean hasi ziren oñatiarrak jotzen eta ordutik hona hamarna kontzertu eskaini dituzte.

Hortaz, irailaren 29rako planik ez duenak badaki nora joan behar duen. Oñatiko txosnagunera joaten denak giro ezin hobea aurkituko du.

**miren barrena
arropa denda
neurri bereziak**

*Ondo pasau
jaixetan!*

**Kalezaharra, 12 B
20560 Oñati
628 526 265**



AUTO KLASIKOEN ERAKUSKETA

Garai bateko ibilgailuak ikusgai lehenengoz

Domekarako, inguruko herrietako 25 bat auto biltzea lortu du Oñatiko Racing elkarteak

MIRIAN BITERI

Aspaldiko autoak ez dira egunero ikusten. Domekan, hala ere, 25 bat ibilgailu ikus-teko aukera izango du txosnagunera joaten denak. Oñatiko Racing elkarteak antolatu du ekimena.

Aurtengo egitarauaren nobedade esanguratsuenetarikoa da domekan egingo duten auto klasikoaren erakusketa. Txosnagunera eta unibertsitate ondoan egongo dira ikusgai ibarreko errepideetan aspaldi ibili ziren ibilgailuak.

Oraindik baten bat baieztatzeke dagoen arren, egun horretan 25 auto inguru bilduko direla jakinara-

zi du Oñati Racing elkarte-kide Mikel Altunak.

Aurten lehenengoz txosna jartzea erabaki du talde horrek. "Gure zale-tasunarekin zerikusia zuen ekimenen bat antolatzea ere bururatu zitzaigun", azaldu du oñatiarrak. Rally bat antolatzea "oso konplikatu" da, eta, hori dela-eta, erakusketa egitea erabaki zuten.

EZAGUNAK

Ezagunen bidez lortu dituzte auto batzuk. Bergarako Aitor Zabaleta pilotu ohiarekin ere harremanetan jarri ziren. "Horrelako erakusketa askotan ibiltzen da hura, eta auto gehienak hark lortu dizkigu", esan du Altunak. Norbait interesatuta egonez gero, elkar-tearekin harremanetan jartzeko dei egin du.



Elgetan erakutsitako auto berdintsuak ikusi ahal izango dira Oñatin.

GOIENKARIA

Unibertsitate gunean

Domekan
12:00-18:00

Aspaldiko 25 bat auto erakutsiko dira txosnagunera eta unibertsitate aldean

Gazte nahiz nagusiendako ekimen erakargarria da auto klasikoaren erakusketa

Jendearen gustukoa izatea espero du. "Zaletasun eta pilotu ugari daude gurean", gogorarazi du. Erakusketa 12:00etatik 18:00ak arte egongo da unibertsitate ondoan. Horren harira, gazte nahiz nagusiendako ekimen erakargarria dela esan du Altunak. Aprobetxatu beharra dago, horrelako autoak ez dira-eta egunero ikusten.

ERALDATU, ERAIKI

BALIOA ERANTSI

Gizakiok antzinatek izan dugu aterpe seguru baten beharra. Egun, oraindik ere, segurtasuna ezinbesteko balioa dugu eraikuntzan.



 **LANA**
www.lana.coop

HERRI EGUNA

Txorizoa, taloa eta sagardoa, Herri Eguneko protagonistak

Ekitaldi gehienak unibertsitate aurreko gunean izango dira

MIREIA BIKUÑA

Urriko lehen zapa-tuan, urriaren 6an, ospatuko da Herri Eguna. Berrikuntza askorik behar ez duen eguna da. Egitarau zabala prestatu dute.

Goizeko hamar eta erdietan hasiko dira lehiaketak: herri mailako aharri, ardi eta bildots lehiaketa, fruitu eta barazki lehiaketa eta gazta lehiaketa. Aldi berean, unibertsitate aurrealdean hainbat erakusketa ikusi ahal izango dira: behiak, astoak, behorrak, zaldiak, euskal txerri eta oiloak eta lore eta landareak.

Unibertsitate aurrealdeko giroa alaitzeko, Tolosako gaita jotzaileak ibili-

ko dira. Halaber, institutuko arkupeetan, Ezker Abertzalearen eskutik, taloa eta txorizoa jateko aukera egongo da. Herri tabernan hamarretakoa egiteko 2.500 txorizo inguru prestatuko dituzte.

Herri bazkarirako 1.000 txartel jarri dituzte salgai

Tapia eta Leturiaren emanaldia iragarri dute txosnagunean

HERRI BAZKARIA

Unibertsitate aurrealdeko azoka eta artisau erakusketa ikusi ondoren, plazako sagardoa dastatzeko aukera egongo da. 24 sagardotegitako sagardoa egongo da edateko. Hain zuzen, sagardo dastatzea 12:00etan hasiko da.

Ondoren, 14:30 inguruan herri bazkaria egingo dute kiroldegiko kantxan. Menua, ezin hobea: marmitakoa, erredondoa saltsan, almendrazko tarta melokotoiarekin, kafea eta kopa. Bazkalostea giro-tuko dute Oñatiko txistulari taldeak, gaita-jotzaileek eta trikitilariek.

Izarraitz, Umerez, Olakua, Arrano, Guria eta Antton tabernetan daude herri bazkarirako txartelak salgai, 16 euroren truke. Kultura Saileko arduradunek 1.000 txartel jarri dituzte salgai.



Plazan 24 sagardotegitako sagardoa egongo da dastatzeko.

GOIENKARIA

HERRI KIROLAK

Goiz parteko giroarekin jarraitzeko, arratsaldean herri kirol jaialdia iragarri dute herriko plazan. Hala, Miren Urkiola eta Maria Jose Sardon harri jasotzaileen arteko desafioa ikusteko aukera egon-

go da. Era berean, Aimar Irigoien eta Izeta II.a nor baino nor gehiago ariko dira. Aizkoran, berriz, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko desafioa egongo da.

Ilunabar aldera, musikak hartuko du lekukoa herriko hainbat lekutan.

Parrokian, Esnalen Salbea abestuko dute Parrokiako koruak eza Oñati abesbatzak, 19:30ean.

Plazan, Erdizka Laue-ta taldearen dantzaldia iragarri dute eta txosnagunean, berriz, Tapia eta Leturiaren emanaldia.



Tel.: 943 78 08 90
e-posta: informatika@lizker.com

- Salmentak
- Instalazioa eta mantenua
- Konponketak
- Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan



Tel.: 943 71 80 52

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitortpena

Ondo pasatu San Migeletan!

Errementari plaza 2-3 behea • Oñati

ERROSAIXO-BIXAMONA

Errosaixo-bixamonako mozorroak, geroago eta buruhauste txikiagoa

Mozorroak saltzen dituzten etxeetan esan digute jendeak gurago duela mozorroa goitik behera erosi

GOIENKARIA

Urriaren 8an, astelehena, ospatuko dute oñatiarrek Errosaixo-bixamona. Herritarrek mozorrotzeko aprobetxatzen dute egun hori.

Hilaren 8an Iriarena Txistulari Bandak iragarriko du, 09:00etan, Errosaixo-bixamona eguna hasi dela. Txikiendako izango da goiza, 09:30ean poney eta adardun animaliak egongo dira-eta Foruen plazan. Eta jarraian (10:00), Arno abeltzaintzako zezenen eskutik sokamuturra egingo dute.

MOZORROTZEKO EGUNA

Errosaixo-bixamona eguneko berezitasuna da, baina, gazte eta nagusiek mozorrotzeko aprobetxatzen dutela. 12:00etan koadrilen arteko mozorro erakusketa hasiko dute, eta orduan, Oñatiko kaleak kolorez jantziko dira. Beste ospakizun askorekin ger-



Oñatiko neska koadrila, pailazoz mozorrotuta, San Miguel kooperatibaren aurrean egindako erretratuan.

GOIENKARIA

tatu den moduan, mozorrotzeko orduan ere ohiturak aldatu egin dira.

Dakigunez, jendeak dagoeneko ez du lanik hartu gura izaten mozorroa egiteko orduan, erostea

"Egia da barrea eragiten duten mozorroek arrakasta handia izaten dutela, horrelakoak ondo saltzen ditugu"

izaten da errazena. Hori da Gasteizko Romu mozorro dendan esan digutena: "Oñatitik jende asko etortzen da hona mozorroa erostera. Hain zuzen, kontua da askoz ere erosoagoa

dela koadrila osoarendako mozorroa erostea, mozorroak egiteko oiha-lak eta bestelakoak erosten hastea baino".

DENETARIKO PREZIOAK

Oñatiarrek aurtengo egunerako zer-nolako mozorroak erosi dituzten jakin gura izan dugu, baina dendako arduradunak gorde egin gura izan du informazio hori: "Egia da barrea eragiten duten mozorroek arrakasta izaten dutela, horrelakoak ondo saltzen ditugu. Bestela, baina, aurtan ez da zineman pertsonaia ikusgarri egon, gero horren gaineko mozorroa egiteko".

Prezioei dagokienez, hor dago beste abantailetako bat, denetariako prezioak dituzte-eta. "Adibidez, umeendako 12 euroko mozorroak ditugu, eta nagusiendako 60 euro ingurukoak ere bai; baina garestiagoak ere baditugu". Hori bai, mozorroa aukeratzeko orduan, oñatiar gehienek dendan dituzten berritasunengatik galdetu dute.

Ondo pasa jaiak!



Peugeot 308
Zatoz ikustera!

Oñati
GARAJEA

Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
e-posta:
garageonati@euskalnet.net

Osi

kirolak



Mendiko kale 10 OÑATI Tel.: 943 78 35 09

DANTZARAKO MUSIKA

Dantzazaleendako euskal folka eta camp musika aukeran

Tapia eta Leturia, Egan, Erdizka Lauetan eta La Dama orkestra dira aukeretako batzuk

GOIENKARIA

Askotariko ikuskizunez gain, dantzarako musika egiten duten taldeak ere izango dira San Migel jaietan: Tapia eta Leturia, Egan, La Dama orkestra... Aukera zabala, duda barik.

Euskal folk taldeak, camp orkestrak... doinu dantzagariak egiten dituzten taldeez gozatzeko aukera izango dugu San Migel jaietan.

Datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Haitzama taldeaz gozatzeko aukera izango dugu. Haitzama taldekoek ondo ezagutzen dituzte oñatiarren dantzarako gustuak, eurak ere oñatiarrak dira eta. Bestalde, eskarmentu handiko taldea da; plaza ugari ezagutzen dute. Haitzama taldekoek 20:30ean egingo dute kontzertua, Foru plazan. Hala, afalorduko geldialdiaren eta Udal Musika Bandaren kontzertuaren ostean jarraituko du Oñatiko taldearen emanaldiak.

DANTZAN IKASTEKO AUKERA

Dantzan ez dakitenek ikasteko aukera izango dute San Migeletan. Hain justu, Erdizka Lauetan taldeak



Tapia eta Leturia musikariak txosnagunean egongo dira, urriaren 6an, 23:30ean.

GOIENKARIA

Dantzan ez dakitenek ikasteko aukera izango dute Erdizka Lauetan taldearekin urriaren 6an

dantza eskolak emango ditu urriaren 6an, zapatua, 20:30ean, Foru plazan.

Baina ez da hori urriaren 6an dantza egiteko egongo den aukera bakarra. Izan ere, txosnagune-

an Tapia eta Leturia eza-gunek emanaldia egingo dute. 23:00etan izango da hori. Horrenbestez, erromeria giroan dantza egitea gustuko dutenendako aukera paregabea eskaini-

Urriaren 7an camp dantzaldia izango da Foru plazan La Dama orkestrarekin

ko dute Tapia eta Leturia musikariek urriaren 6an, txosnagunean.

Azkenik, camp dantzaldia dira jaietako beste klasikoetako bat: pasodobleak, tangoak... La Dama

orkestrak egiten ditu halako doinuak eta urriaren 7an, domeka, Foru plazan egongo da, 23:30ean, Caballer etxeak eskainiko duen suzko errubera saioa bukatu eta gero.

Eganekin esango diete agur jaiei

Euskal Herriko erromeria talde mitikoenak aurtenera ez du hutsik egingo San Migel jaietan.

Urriaren 8an Errosaibixamona ospatuko dute oñatiarrek eta urteak dira Egan musika taldea lagun izaten dutela egun horretan.

Xabier Saldiasen taldeak 35 urte bete ditu dagoeneko, eta oraindik ere herririk herri dabilta giroa alaitzen. Oñatin ere horixe egingo dute. Emanaldia bitan banatuko dute; 20:00etatik 21:00etara bitartean jardungo dute lehenengo, eta, gero, 23:00etan ekingo diote berriz. Foru plazan izango da erromeria.

Kontuan hartzeko da, bestalde, Eganen aurretik batukada emanaldia ere izango dela. Hain justu ere, Djamboree taldeak herriko kaleak alaituko ditu bere perkusioarekin 19:00etatik 21:00etara bitartean.

ezjoeleta



Hizkuntza Zerbitzuak

Irakaskuntza

Itzulpenak

Interpreteak

Interpreteak

Itzulpenak

Irakaskuntza

Hizkuntza Zerbitzuak

Hizkuntza Zerbitzuak

Irakaskuntza

Itzulpenak

Interpreteak

euskara · ingelesa · frantsesa · alemanera · italiera · gaztelania...
 ingelesa · euskara · frantsesa · alemanera · gaztelania · italiera...
 frantsesa · ingelesa · euskara · gaztelania · italiera · alemanera ...
 alemanera · frantsesa · gaztelania · italiera · ingelesa...
 italiera · alemanera · gaztelania · ingelesa · euskara · frantsesa ...
 gaztelania · italiera · alemanera · frantsesa · ingelesa · euskara...
 euskara · ingelesa · alemanera · frantsesa · italiera · gaztelania...
 ingelesa · euskara · alemanera · frantsesa · italiera · gaztelania...
 frantsesa · ingelesa · euskara · gaztelania · italiera · alemanera ...
 alemanera · frantsesa · gaztelania · euskara · italiera · ingelesa...
 italiera · alemanera · gaztelania · ingelesa · euskara · frantsesa ...
 gaztelania · italiera · alemanera · frantsesa · ingelesa · euskara...



Interpreteak

Itzulpenak

Irakaskuntza

Hizkuntza Zerbitzuak

**koma-k familia eta lagun artean
 jai zoriontsuak
 igaro ditzazuela opa dizue!**

- Gazteak eta helduak
- Enpresa trebakuntza
- Neurrira eginiko trebakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Azterketa prestakuntza
- Talde mugatuak (gehienez 6)
- Jatorrizko irakasleak

koma
 servicios
 lingüísticos
 language
 services

www.komalingua.com

Informa zaitez:

Olakua 7 Behea · 20560 Oñati · 943 71 82 08



ONATI
www.zelaia.net

1970ean sortua



**Erreforma
integralak**
Kalitate handiko
eta estilo
ezberdinetako
bainugelak.

Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81